

irakurri ondoen, Euskaltzaindiak, bere buru danaren eritxiz, Altube jaunari eskeñi dio *Eusker*a aldizkariaren zuzengoa. Ez du Altube jaunak lan ori beragandik ayanatzen bañan nai luke eta Euskaltzaindiak ere ondo deritza, ortarako egun edo aste batzuen beta, betikotz erantzuteko edo baietz edo ezetz; erabaki au datoñeneko, Landeretxe ta Intza'ren idazkien ardura utzi da.

6. Azkue jaunak bere *Morfología* irakurri du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoi-tzez amaitu da batzaraldia.

---

### Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1924 'ko Lotaziãa 'ren 23 'an.

Aurẽko batzaraldian agirian aipatzen diran jaun berak datoz, Kanpion eta Etxegarai ezik.

1. Lekuona urgazle jaunak Euskaltzaindiari irakurri dio bere idazki bat : idazki ontan dakar aditzaren aldi edo garayak betikotz erabaki bear lirakenen era bat. Erantzun dio Lekuona jaunari beste idazki batez Ormaetxea jaunak. Onen idazkia zadorlariak irakurri du. Ez da ezer erabaki Lekuona'ren idazkia *Revista Internacional*-en argitaratzea baño.

2. Lakonbe jaunak, erderaz *participio* edo *adjetivo verbal* esaten danez itz egin du : alegiyan batzuetan *irakur-ikas* datoñela; bestetan, irakurri, ikasi. Euskaltzaindiak gogoz entzun dio.

3. Azkue jaunak bere *Morfología* irakurri du.

Ta beste gairik izan ez-da otoitzez amaitu da batzaraldia..

---

### **Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Ilbeltza'ren 29'an.**

Batzaraldian bildu diran euskaltzain jaunak abek dira : Azkue maipuru, Urkijo, Landeñetxe. Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube ta Lakonbe eta urgazletatik Ormaetxea, Belaustegigoitia eta Oleaga.

Oiturazko otoitza egin da.

1. Iragari da : Azpeiti'ko alderdian, ostera eskolatan kristau-euskal-ikastaroa beñi tu dala.

2. Erizkizundi Irukoitza zerbait ere bete da emen da an egin diran lanez. Orain ordea ondo gertu ta moldatu bear dira lan oyek. Auxe egitea Euskaltzaindi etxeko langileai egotzi zaye.

3. Bazkide aberats batzuk Euskaltzaindiak bereganatu bear litukeala itz egin da oñela noski sorospide geyago izango luke-ta. Aipatu dira Bilbo'ko jaun batzuek; aurrezki-kutzak ere bai, bañan ez da ezer erabaki.

4. Ormaetxea urgazle jaunak bere lan bat irakurri du : *Pasividad del verbo vasco* : gai au lendik Schuchardt jaunak erabili du. Oni erantzun nai dio Ormaetxea jaunak esanik, euskaldunok ezdegula *pasivo*-rik somatzen edo bururatzen gure aditza darabilkigunean.